



Agustinatako obretan eskabadora eta kamioi mugimendu haundia dabil.

## Agustinatan zentru komertziala, hotela eta etxeetarako prestaketa lanetan ari dira eta konbentuko obrak gutxi barru hasiko dira

■ Datorren astean Agustinatako konbentuaren aurrean dagoen etxea botako dute, eta inguru hori libratzean hasiko dira konbentua bera berritzeko obrak ■ Obrak maiatzean hasi ziren.

AGUSTINA inguruko obrak aurrera dijoaz eta konbentua bera berritzeko lanak ere gutxi barru hastekoak dira. Orain artean, konbentua azpikaldea eta Karmelo Labaka bitarteko eremu horretan izan dira obrak, zentro komertziala, hotela eta etxebizitzak joango diren lurra prestatzen. Lanak maiatzean hasi ziren, eta geroztik lur mugimendu haundiak izan dira. Agustinatako proiektuan pisu haundia du zerbitzuetako aktibitate ekonomikoak eta 7.500 metro karratu horretarako izango dira. Zonalde berean, 60 etxebizitza inguru ere joango dira.

### Konbentua berritzen

Agustinatako konbentua berritzeko lanak ere egun gutxi

barru hasiko dira. Horretarako, konbentua eta Zinkoenea artean dagoen etxea bota behar dute lehenbizi, eta ingurua libratzean, orduan hasiko dira obrarako prestaketa lanetan.

Konbentuaren erdiko jatorrizko zatia izan ezik, gainontzeko eranskinak bota egingo dituzte, eta konbentua berritua orain dagoena baino txikiagoa geldituko da, ikulutarako erabiltzen zen puska erdira etorriko delako.

Klaustro buelta guztia berritu egingo dute eta hori izango da denbora gehiena emango duen lana. Konbentua buelta osoan jardina izango du, eta inguru guztia rotonda izango da. Obrak urte eta erdian bukatuta egotea espero du Elizondo arkitektoak. □



Zenbait lekutan prestaketa lanak oso aurreratuta daude.

### ■ SASKIBALOA

#### Hernani-Zarautz gaur

HERNANIKO saskibaloitza taldeak partidua du gaur Zarautzen kontra, kiroldegian, arratsaldeko 16:30etan. Hernaniarrak denboraldi hasiera oso ona egin dute kadete mailan eta horri eustera aterako dira. □

### ■ BOLEIBOLA

#### Hernani-Sestao gaur

BOLEIBOLEKO mutilen taldeak aukera ezin hobea dauka gaur ligako lehen postuan jartzeko. Lehengo astean liderrak eta hiru garren sailkatuak galdu egin zuten eta Hernanik gaur Trueba Sestaori irabazten badio lehen postuan jarriko da. Gaur 17:30etan kiroldegian. Nesken taldeak bihar jokatu du 11:00etan Getxon, Aixerrota taldearen kontra. □

### ■ WATERPOLOA

#### Derbya bihar

HERNANIKO bi taldeek elkarren kontra jokatu dute bihar, 13:00etan. Hernani A lehenengo dijoa jokatu du 3 partidua irabazita eta Hernani B 5garren dijoa, partidua irabazi eta 2 galduta. □

### ■ FUTBOLA

#### Hernani-Beti Gazte bihar

GORENGO taldeak Lesakako Beti Gazte taldearen kontra jokatu du, bihar 17:00etan Zubipen. Hernani etxeko puntuak lortu ezinda dabil eta joera aldatzen saiatuko dira bihar. Emakumezkoen ligan, Hernanik Deban jokatu du bihar Amaiak Bat taldearen kontra, 15:30etan. □

#### Txistulari Banda eta Kantuz gaur

SANTA Zeziliako kontzertuen barruan, Txistulari Bandak eta Kantuzek kontzertua emango dute gaur. Emanaldia, 19:00etan da Sandiusterrin. □

 **Antziola-Motor**  
Salmenta eta taller zerbitzua

**Ford Mondeo**

3 aukera ezberdin, gusto ezberdientzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

**Etorri, ikusi eta aukeratu.**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10- 13

**OINDI**



taberna

**NAGUSIA, 25 HERNANI**  
943 557 509

  
Especialistas en Electrodomesticos

**CANAL+**

**DIGITAL+**

**Telemar - Itxastele**  
Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99  
Nagusia 7 - Tel.: 943 33 26 00

**Telemar ANTENAK**  
TB ANTENA PARABOLIKOEN INSTALAZIOA  
INDIVIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK  
TELEDISTRIBUZIOA  
KONTSERBAZIO eta MANTENIMENTUA

Telefonia fijo eta mugikorra

**Telefonica Movistar**

## Nere Borda parke botanikoa datorren astelehenean zabalduko dute

NERE Borda parke botanikoa datorren astelehenean zabalduko dute eta goizeko 11:00etan izango da inaugurazio ekitaldia. Nere Borda orain dela 2 urte hartu zuen Udalak eta erabat txukundu

eta diseino berria eman dio. Parkeak 5.700 m<sup>2</sup> ditu eta, 63 landare eta zuhaitz espezie, bakoitzak bere izena ondoan duela. Horien artean, Gipuzkoako pinurik haundiena dago. □

### INZINERADORA PROIEKTUA

## Inzineradoreen kontrako plataformak Hernanira zabaltzeko asmoa du


■ Bihar kontzentrazioa dago Urnietan 12:00etan, eta hernaniarrei joateko deia egin die.

INZINERADORAREN kontrako *Arnasa* plataformak herrietara zabaltzea erabaki du aste honetan egindako batzar jendetsuan. Plataformaren ustez arazoa ez da Urnietakoa, eta inguruko herriak inplikatzeko nahi du. Bere

ustez, Tolosatik Oiartzunera bitarteko herrietan izango du eragina inzineradorak.

*Arnasa* iganderako kontzentrazioa eta manifestazioa deitu ditu 12:00etan Urnietako plazan, eta hernaniarrei ere joateko deia egin die. □

## ERREMONTA



Ezkurak partidu latza du gaur.

## Ezkurra eta Lizaso gaur buruz buruz

GALARRETAN Koteto Ezkurak eta Iñaki Lizasok elkar probatuko dute gaur buruz buruz. Partidu ikusgarri horretaz gain, beste hiru ere izango dira, 16:00etan hasita: Zeberio I-Aizpuru/Matxin III-Olazar; Altuna II-Etxabe/Zeberio II-J.Etxeberria; eta Elizalde-Auzmendi/Sarasua-A.Lekunberri. □

## Goiz Eguzki Jubilatutako Etxeak Iratxera eskurtsioa antolatu du abenduaren 9an

JUBILATU Etxeak eskurtsioa antolatu du Iratxera, abenduaren 9rako. Autobusa 08:30etan aterako da Atsegindegitik eta Iratxe bisitatuta Cuadernavia bodegara joango dira aperitiboa egitera. Gero, bazkaria, baileta, eta bingoa izango dituzte. Zozketa, azaroaren 26an. Prezioa, 24 euro. □

## PELOTA

## Manzidor eta Martinezek partidu gogorra bihar kiroldegian

PARTIDU dotorea ikusteko aukera izango da bihar Hernaniko kiroldegian, paleta goman, Gipuzkoako txapelketaren barruan. Goiatz Manzidor eta Amaia Martinez hernaniarrak dira Euskal Herriko txapelak eta Gipuzkoako txapelak kontrajokatuko dute, Arozena eta Urkizuren kontra. Bihar, igandea, 12:00etan kiroldegiko frontoian. □

## HITZ BITAN

### MAHAI TENISA

#### Valverde eta Mitxelena Top Estatalerako sailkatuta.

Top Estataleko finalerako sailkatu dira Aitor Mitxelena eta Aitor Valverde, 21 urtez azpiko kategorian. Zonaldeko fasean 2 eta 7 garren gelditu dira bi hernaniar gazteak eta azken fasea jokatzeko sailkatu dira. Aitor Odriozolak ere lehen fasea pasatzea lortu zuen inguruko fasean, baina, ez du lortu finalerako sailkatzerik. Mitxelena lehenengo gelditu zen bere taldean eta final laurdenetan galdu zuen Unai Rojo arabarraren kontra. Valverde ere lehenengo gelditu zen bere taldean eta finaleraino sartzea lortu zuen. Finala Unai Rojoren kontra galdu zuen honek ere. Jubeniletan Irastorza eta Iarzak hartu dute parte baina ezin izan dute aurrera egin, Zuhaitz Irastorzak aukera haundiak bazituen ere. Alebin eta infantiletan Salamancan parte hartu zuten Markel eta Joxeba Lizeagak. Ez dira aurrerako sailkatu, baina paper txukuna egin dute.

### IGERIKETA

#### Igeriketa proba gaur Hernanin.

Igeriketa proba izango da gaur kiroldegian, arratsaldeko 16:00etan. Hernaniko 38 igerilari ariko dira beste taldekoen aurka lehiatzen eta etxekoek jendeari deia egin diote animatzera azaltzeko. Probak dira: 4x50, 100 m tximeleta, 200 m bizkar, 100 m bular, 200 m libre, 200 m estilo, 400 m libre, 50 m bizkar, 50 m libre eta 4x 400 m libre. Hernanik hasi berria du denboraldia eta oso ondo dioa oraingoz, lehen mailan 3garren postuan, Bidasoa eta Igarondo taldeen atzetik. Aurreko astean Benta Berriko igerilekuan izan zuten kompetizioa eta hernaniarrak oso maila ona eman zuten. Ea ondo hasitakoari maila berean eusten dioten.

### KRISKITIÑA TALDEA

**Dantza suelto ikastaroak.** Kriskitiña dantza taldeak dantza suelto ikastaroak emango ditu 5 urtetik gorakoentzat. Informazioa nahi duena Biteri kultur etxetik pasa gaur 12:00etatik 13:00etara.

### TELEDONOSTI

**Lehiaketa Hernanin.** Teledonostik lehiaketa antolatu du kantu, dantza, imitazio, txiste kontatze, interpretazio eta abarretarako. Hernanin datorren igandean izango da proba, goizeko 11:30etatik 14:00etara, plazan. Parte hartu nahi dutenak bertara azaldu eta 607 200033 telefonora deitu behar dute.

### XALAPARTA ELKARTEA

**Sagardo lehiaketa gaur.** Xalaparta elkarteak gaur da Sagardo lehiaketa. Afal orduan egiten da txapelketa eta bertako jendeak puntuazioz aukeratuko du sagardorik onena. Afal ondoan emango dira sariak.

### ZINEA BITERIN

**Bi pelikula gaur.** Bi pelikula botako dituzte gaur Biterin. Umeentzat *Papa Canguro*, 17:00etan. Helduentzat *Hollywood: Departamento homicidios*, 19:30etan eta 22:30etan. □

### JASOTA BEZALA

#### Azaroak 25

Kalean senar-emazteak eguraldiari aurka eginez, karrikan gora eta behera, zerua goibel, tximistak hodeien artean. Aterki gorria duen gazte bat hurbiltzen zaie zerbait galdetu nahian Non dago Hernani kalea? Emazteak gogoetari ekiten dio, begirada galduz, handik gutxira azalpenak ematen hasten da lehenengo aurrera, ondoren okertu ezkerretara eta, azkenik, gurutza ezazu bidea.

#### Senarrak "Baina, zer diozu?"

Gaizki esaten ari zara, zuk ez dakizu ezer ere. Gazte! Joan zaitez aurrera, ondoren ezkerretara eta, gero gurutzatu bidea. Gazteak zer esan ez dakie-la eskerrak ematen dizkio emazteari eta ziztu bizian alde egiten du erabat lotsatuta.

Asma ezazu bost minututan zer motatako tratu txarra jasan duen emazteak.

Jone Egaña  
Ste-Eilas

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA		Taldeak		Non		Noiz	
Goren.	HernaniB etiko azte	Zubipe	Bihar 17:00	PELOTA			
Emakum.	Amakak Bat-Hernani	Emotazar	Bihar 15:30	Erremontea - Galarretako Jaialdia			
Gaz. Eusk.	Galdakao-Hernani	M. eabeta	Gaur 18:00	1) Zeberio I-Aizpuru I/M atch III-Olazar			
Gaz. I.	Amakak Bat-Hernani	Emotazar	Gaur 11:00	Galaneta			
Kad. Oh.	Touring-Hernani	B. ezaun	Gaur 09:30	2) Ezkura / Lizaso			
Kad. I.	HernaniEkitza	Zubipe	Gaur 09:30	3) Altuna II-Etxabe / Zeberio II-J.Etxeberria			
Haur Oh.	HernaniUrola	Zubipe	Gaur 11:15	4) Elizalde-Auzmendi/Sarasua-A.Lekunberri			
Haur I.	Astiganagako Hernani	Zakum en.	Gaur 11:30	Gipuzkoako Txapelketa			
Alebinak	Deskantsua			Paleta goma			
ERRUGBIA				Kronika Txapelketa			
Liga Nazio.	Getxo-Hernani	Fadua	Bihar 12:00	Ezkurak			
Euskal Liga	U.Cantabria-Hernani	Santander	Gaur 15:30	Manzidor			
Jubenila Eusk.	Alebinak-Hernani	Landare	Gaur 16:00	Martinez			
Kadetea Eusk.	HernaniA t. etko SS	Landare	Bihar 12:00	SASKIBALOA			
Infantila	HernaniA t. etko SS	Landare	Bihar 10:30	Euskal Liga			
Alebinak	HernaniB eta Bera	Landare	Bihar 10:30	HernaniZarautz			
WATERPOLOA				BOLEBOLA			
Euskal Liga	HernaniA-HernaniB	Kiroldegia	Bihar 13:00	Euskal L. Mut			
				HernaniT. meba Sestao			
				Euskal L. Nes			
				Kontak-Hernani			

**GALARRETA JAIALDI**

**Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak**

**GAUR 16:00 ETATIK AURRERA**

**ERREMONTA JAIALDIA:**

- partidua: Zeberio I - Aizpuru II / Matxin III - Olazar
- partidua: Ezkurra - Lizaso (buruz burukoak)
- partidua: Altuna II - Etxabe / Zeberio II - J.Etxeberria
- partidua: Elizalde - Auzmendi / Sarasua - A.Lekunberri

**OIALUME BILTOKIA**

**Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30tatik**

**Bihar Igandea, dantzaldia. ZATOZ!**

OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa  
943 55 29 38

**ZERBITZUAK**

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
☎ Taxiak: 943 550093	☎ Egunez: Gomez Justel
☎ Udaltzaingoa: 943 333288	Kale Nagusia 14
☎ DYA: 943 464622	☎ 943 554892
☎ Autobusak: 943 556662	☎ Gaez: Gil
☎ Anbulatorioa: 943 006666	Lasarte. Nagusia 24
☎ Jokalari anonimoak: 943 331103	☎ 943 361529

**IRAGARKI MERKEAK**

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: **943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu)**

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebrala, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia, ...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33**

Furgoneta salgai. Renault Traffic-a. Interesatuak: **943 550317**